

## Ñigo Ramirez de Okariz, bikain cum laude

2013/07/17

Tesiaren defentsa goizeko 11:00etan hasi da, Eskoriatzan, eta bertan izan dira doktoregaiaren familia, zenbait lagun, tesi zuzendariak eta lankideak. **Iñaki Arrieta** eta **Mariam Bilbatua** doktoreek zuzendu dute tesia. Epaimahaia, berriz, doktore hauek osatu dute: **Begoña Bilbao** (lehendakaria), **Joserra Vitoria** (idazkaria), **Margaret Bullen** (bokala), **Kepa Perez Urraza** (bokala) eta **Nekane Goikoetxea** (bokala). Ekitaldiko argazkiak [Flickr-en](#) ikus daitezke.

Doktoregaiak aurkezpena egin ondoren, epaimahaikideen txanda izan da iradokizunak egiteko. Aurkezlearen erantzunen ostean, epaimahaia deliberatzera bildu da, eta epaia eman du: gai cum laude.

### Tesiaren gaia

Zer eta nola transmititzen eta eraikitzen dute Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeek (hezkuntza formalak) ingurune hurbileko (herriko, eskualdeko) kultura ondarea? Ze eragin dute transmisio eta eraikuntza horretan beste gainontzeko hezkuntza eragileek (ez-formal, informal)? Nola hobetu kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketa transmisioa eraikuntza horren mesederako? Horra ikerketa lan hau bultzatu duten galderak eta kezak.

UNESCOK berak ere onartzen du, ikuspegi orokor bati begiratuta, eskolak ezintasun nabarmena daukala munduaren bilakaera azkarrei aurre egiteko. Beraz, unea da, "hezkuntza formalaren" krisia aitortuta, "hezkuntza ez-formalaren" eta "hezkuntza informalaren" hezkuntza ahaleginak biltzeko eta ahaztuta nahiz gaizki erabilia zeuden hezkuntza eragileak eta prozesuak berreskuratzeko, eta tratamendu integral bat ezarri ondare-hezkuntzaren garapena sustatzeko.

